





<b>HAUTAGAIAK (2/1)</b>		<b>PROPOSATU DUEN ERAKUNDEA</b>
	<b>Javier Hernáez Manrique jr.</b>	<b>Legelarien Euskal Kontseilua</b>
	<b>Estefanía Ocáriz Passevante and.</b>	<b>Vitoria-Gasteizko Udala</b>
	<b>José Antonio Nieto Antón jr.</b>	<b>Segurtasun Saila</b>

<b>HAUTAGAIK (2/2)</b>		<b>PROPOSATU DUEN ERAKUNDEA</b>
	<b>Miren Ortubay Fuentes and.</b>	<b>Segurtasun Saila</b>
	<b>Juan Luis Ibarra Robles jn.</b>	<b>Segurtasun Saila</b>
	<b>José Julio González Zamanillo jn.</b>	<b>Segurtasun Saila</b>

## Javier Hernáez Manrique

### IKASKETAK

Zuzenbidean lizentziatua  
Nazioarteko Aditua Industria Harremanetan

### LANBIDE ESPERIENTZIA

Sunion Calderón García Moreno Abokatuen Bulegoaren bazkide sortzailea eta kidea, 1990etik gaur arte.  
Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Harremanen Kontseiluko arbitroa, 2001etik gaur arte.  
Lan Zuzenbidean, Gizarte Segurantzaren Zuzenbidean eta funtzionarioen arloko Administrazio Zuzenbidean 3.000 gaietan baino gehiagotan esku hartu du: kontsultak, txostenak eta erreklamazioak lanaren arloko eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean. 2.000 epaietan baino gehiagotan parte hartu du.  
Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Kontseilu Nagusiko kontseilaria, 1986-1992.  
Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren Gipuzkoako Probintzia Batzorde Betearazleko kidea, 1982-1995.  
Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko Gobernu Batzordeko kidea, 1999-2007.  
Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko dekanordea, 2007-2012.  
Legelarien Euskal Kontseiluko kidea, 2002-2012.  
Irakasle-jarduera oparoa Euskal Herriko Unibertsitatean, Praktika Juridikorako Eskolan, Salamancako Unibertsitatean eta Gaztela-Mantxako Unibertsitatean.  
Hainbat eta hainbat argitalpen eta kolaborazio proiektuetan

## Estefanía Ocáriz Passevant

### IKASKETAK

Psikologiako doktorea  
Zuzenbide Psikologiako masterra  
Nazioarteko Aditua Gazte Delinkuentziaren eta Adingabeen Zigor  
Zuzenbidearen arloan  
Bitartekaritzaren arloko goi-mailako unibertsitate-ikastaroa

### LANBIDE ESPERIENTZIA

Kriminologiaren Euskal Institutuko ikertzailea (2000tik gaur arte).  
Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzaren Gazte Justiziaren planen  
ebaluatzailea, 2006tik gaur arte.  
Europako Batzordearen AGIS programa: Adingabe etorkin arau-  
hausleak: faktore etiologikoak, berrerortzearen ebaluazioa eta  
prebentzio-politikak.  
Europako Batzordearen DAPHNE programa: Emakumeen aurkako  
indarkeriaren oinarriko prebentzio-programen analisi kualitatiboa eta  
meta-analitikoa.  
Hainbat arlotako eskolak eman ditu Euskal Herriko Unibertsitatean eta  
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademian (Parez-Pare jardunaldiak,  
Ertzaintzan kategoriaz igotzeko ikastaroak).  
Argitalpen ugari.

## José Antonio Nieto Antón

### IKASKETAK

Gizarte Hezkuntza

### LANBIDE ESPERIENTZIA

Ertzaintzako 3. Promozioa, 35 urte zerbitzuan.  
Bilboko Ertzain-etxeko Herritarren Babeserako Ataleko komisarioa.  
Bilboko Ertzain-etxeko operazio-burua.  
Bilboko Ertzain-etxeko patruila-burua.  
Donostiako Komisariako ofizialordea.  
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako trafikoaren eta garraioen arloko irakaslea.  
Agente lehena Ondarroan eta Getxon.

## Miren Ortubay Fuentes

### IKASKETAK

Zuzenbideko doktorea  
Zuzenbidean lizentziatua  
Kriminologiako graduondoko formakuntza  
Kriminologian diplomaduna

### LANBIDE ESPERIENTZIA

UPV/EHUko Zuzenbide Penaleko irakasle titularra (2006tik gaur arte).  
Arartekoaren aholkulari juridikoa, Justiziaren arloko eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko arduraduna. Atxilotuekin zerikusia duten txostenak egiten parte hartu du.  
Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Penaleko irakaslea, 1986-1995  
Abokatu-lanetan aritu zen 1981etik 1986ra.  
Ikerketa-arloak: Lanaren arloko Zuzenbide Penala, Zehapen penalen exekuzioa eta espetxe-zuzenbidea, Emakumeak eta Zuzenbide Penala.  
“Zuzenbide penala. Euskadi” Ikerketa Taldeko kidea.  
Besteak beste, genero-indarkeriari eta atxilotuen eskubideei buruzko lan ugari argitaratu ditu.

## Juan Luis Ibarra Robles

### IKASKETAK

Zuzenbideko Doktorea  
Zuzenbidean lizentziatua

### LANBIDE ESPERIENTZIA

Unibertsitateko irakasle titularra Administrazio Zuzenbidea eta Administrazio Zientziak jakintza-arloan. Unibertsitate eta Ikerketako Estatu Idazkaritzaren 1984.1.20ko ebazpenaren bidez izendatua. 2010eko maiatzaren 10etik 2020ko ekainaren 21era arte Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko presidentea izan zen.

Justizia Auzitegi Nagusiko presidente izan aurretik, honako lanetan aritu zen: Bilboko Lehen Auzialdiko Epaitegiko magistratu-epailea. Bilboko Lurralde Auzitegiko magistratua; Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia – Administrazioarekiko Auzien Salako magistratua; Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako Hirugarren Ataleko magistratu-presidentea (1992.9.1etik 2003.11.17ra); eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salako magistratu-presidentea.

## José Julio González Zamanillo

### IKASKETA

Industria Kimikaren ingeniari teknikoa.  
Bide Prestakuntzako irakaslea.

### LANBIDE ESPERIENTZIA

38 urte eta erdi Bilboko Udaltzaingoa.  
Segurtasun Alorreko komisario burua. Lantaldearekin batera, Bilboko ekitaldi handiekin lotutako polizia-operatiboak planifikatu, gainbegiratu eta gauzatu ditu, bereziki aipatu behar da "*Tour de France Grand Départ 2023*".  
1999tik 2023ra arte, hainbat jakintza-arlo eman ditu Bilboko Udaltzaingoaren Akademian.  
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiarekin lankidetzan aritu da hainbat ikastarotan, *Bide-segurtasuneko* eta *Lidergoko* irakasle gisa. Polizia-lanarengatiko bereizgarri urdindun domina.